

8.– MAYFLOWER´EKO IBILTARIAK (USA´REN IRASLEAK)

Willian Bradford umezurtz geratu zan, baiña dirudun eta Aitita-amamak izan ebazan zaintzaille.

12 urtekoa zala bibliaz zaletu zan eta ortik atera eban anglikanuen aurkako adorea. Baiña bere fedea zaintzeko beste biderik ez eban ikusten erbesterako bidea baiño.

18 urtera eldu zanean Olanda´ra joan zan, bere antzeko batzukaz, bera kalbinista zalako eta an erlejiño-askatasuna egoalako.

Birritan baitu eben Inghlandia´tik urten nai ebalako, baiña azkenean baimena emon eutsoen William Bradford´eri bere lagunakaz alkartzeko.

Olanda´n sedagilleen ikasle egin zan, adin elduko izan arte eta orduan gurasoakandik artutako ondasunak txautu ebazan eta Leyden´en bizi izaten asi, baiña beste lagun batzukaz mundu barri bat billatu nai eban euren fedea bizi izateko eta era barri baten gizartea eratzeko. Ori Ameriketara baiño ezin zeitekean egin eta Robinson izeneko gizon bategaz Mayflower itxas-ontzira sartu zan eta Ameriketarantz joan ziran.: 1º eguna otoitzean egin eben, urten-orduko artzaiñak egin eutsen berba biblia eskuan eukala: “Bide zuzena aurkituko dogu gutzat eta seme-alabentzat”.

Gogozko ibiltariak ziran. Bidean eragozpen asko izan ebezan eta Birjiniara bagerik Cape Cod´era eldu ziran 1620n. urtean, azillaren 11n. egunean.

An erlejiñoa biziko eben eta errege inglesa onartu. Baiña azkenean eldu ziran lurraldea, ez zan inglesena eta euren gobernua sortu bear izan eben. Lurreratu-orduko idazki bat izenpetu eben; “Mayflower´eko ituna”. Laburra baiña mamintsua ta garrantzi aundikoa Ipar-Amerikaren etorkizunerako: Jakobo erregeari leialtasuna, Jainkoa goratzeko kolonia sortu, fedea zabaltu, erregea ta aberria goratu... gero datorrena beste gauza bat da: Ez da aitatzen erregea, ez da agertzen Europa´ko bizierea, erakunde politiku barri bat izango da, askea ta guztiona.

Asieran gauza erreza ez zan izan: Bidean il ziran batzuk, lenengo neguan 51 il ziran... Ez ziran joan ondo gertatuta!

Indijenak lagundu ez ba´eutsen betiko galduko ziran.

Areik etortea txarra izan zan indijenentzat, gauza askogaitik, esaterako gaiso barriak eroiezan aldean, bertakoak iñoz ezagutu ez ebezenak, esaterako naparrerria... Gero gudea etorri zan....

1636n. urtean Block Island´en ilda aurkitu eben John Oldham. Kolonoak, ori dala-ta, amabi indijena baiño geiago erail ebezan an inguruan. Asi ziran indijenak errudunen billa eta Pequost´en guda sortu zan.

Etorbarriak irabazi eben baiña ez eben lortu Europa´koa lako gizartea, edestian izan dan lenengo demokraziaren oiñarriak bai ipiñi ebezan.

OLAZAR´tar Martin´ek



**Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia**

Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk´ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!